

## 1201 ZB.KO DEKRETUA

2020ko otsailaren 12an Gazteria eta Kirola batzordeak proposatu zuen “2020an Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jardura bereziak antolatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartzea, Oiartzungo Tokiko Gobernu Batzordeak 2020ko otsailaren 25ean onartu zuena.

GAOn martxoaren 6an argitaratu zen, eta ordutik 30 egun balioduneko epea ireki zen eskaerak aurkezteko. Martxoaren 14ean, aldiz, COVID-19 dela-eta sortutako alarma egoeraren ondorioz, 463/2020 E. Dekretua onartu zen eta bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian, 465/2020 E. Dekretuak emandako idazketarekin, prozedura administratiboan epeak bertan behera utzi ziren.

Maiatzaren 22ko 537/2020 E. Dekretuak, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, martxoaren 14az gerostik etenda zeuden administrazio-epeen zenbaketari berrekiten zaiola ezarri zuen. Beraz, dirulaguntza eskatzeko epe berria 2020ko uztailaren 3arte ireki zen.

Epe horretan, Oiartzungo udalean 13 eskaera aurkeztu ziren.

Eskaerak aztertuta, 2020ko urriaren 22ko Gazteria, kirola eta Hezkuntza ez arautuen Batzordearen bilkurak puntuzioak ontzat eman eta haren baitan, honako dirulaguntza ematearen aldeko diktamina eman du:

JARDUERA	ESKATZAILEA	Puntuak	100%	1. ORDAINKETA	2. ORDAINKETA
GAZTE AIZKOLARIEN II. XANISTEBAN SARIA	JON LARRAÑAGA ASTEASUINZARRA	51	2.200,00 €	1.760,00 €	440,00 €
GAZTE AIZKOLARIEN I. XANISTEBAN SARIA	JON LARRAÑAGA ASTEASUINZARRA	45	1.555,00 €	1.244,00 €	311,00 €
PASAKA TXAPELKETA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	51	1.500,00 €	1.200,00 €	300,00 €
GIPUZKOAKO ERREBOTE DESAFIOA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	38	600,00 €	480,00 €	120,00 €
EUSKAL HERRIKO PALA TXAPELKETA IREKIA	GIRIZIA KIROL KULTUR ELKARTEA	49	585,00 €	468,00 €	117,00 €
OIARTZUNGO GAZTEEN MTB TXAPELKETA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARI ELKARTEA	44	271,71 €	217,37 €	54,34 €
			<b>6.711,71 €</b>	<b>5.369,37 €</b>	<b>1.342,34 €</b>

- Covid19ak eraginda, salbuespeneko eskaerak eta norgehiagokan sartzen ez direnak:

JARDUERA	ESKATZAILEA	Puntuak	100%	1. ORDAINKETA	2. ORDAINKETA
INTXIXU TRAIL LASTERKETA	ZORROLA TRAIL	0	160,62 €	128,50 €	32,12 €
			<b>160,62 €</b>	<b>128,50 €</b>	<b>32,12 €</b>

- Baztertuak izan diren eskaerak:

JARDUERA	ANTOLATZAILEA	ARRAZOIA
IBIALDI NEURTUA	BIZARDIA ELKARTEA	Epez kanpo egin du eskaera.

- Dirulaguntzari uko egin dioten eskaerak:

JARDUERA	ANTOLATZAILEA	ARRAZOIA
URKABE IGOERA	ZORROLA TRAIL	Dirulagutzari uko egin dio.
JOKOGARBIA TOPALKETA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	Dirulagutzari uko egin dio.
PALA TOPAKETA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	Dirulagutzari uko egin dio.
PALA SARIA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	Dirulagutzari uko egin dio.
TXOST EGUNA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	Dirulagutzari uko egin dio.

Gai honi buruz egindako diktamenarekin adostasunean Toki-Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ondorengoa ERABAKI DUT:

Oiartzungo udalerrian kirol ekintzak edo jarduera bereziak antolatzeko eskaerei dirulaguntzaren %80a orain ordaintzea eta gainerako 20%a gastuak justifikatu ondoren, beti ere, urteko urtarrilaren 31a baino lehen:

JARDUERA	ESKATZAILEA	Puntuak	100%	1. ORDAINKETA	2. ORDAINKETA
GAZTE AIZKOLARIEN II. XANISTEBAN SARIA	JON LARRAÑAGA ASTEASUINZARRA	51	2.200,00 €	1.760,00 €	440,00 €
GAZTE AIZKOLARIEN I. XANISTEBAN SARIA	JON LARRAÑAGA ASTEASUINZARRA	45	1.555,00 €	1.244,00 €	311,00 €
PASAKA TXAPELKETA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	51	1.500,00 €	1.200,00 €	300,00 €
GIPUZKOAKO ERREBOTE DESAFIOA	TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	38	600,00 €	480,00 €	120,00 €
EUSKAL HERRIKO PALA TXAPELKETA IREKIA	GIRIZIA KIROL KULTUR ELKARTEA	49	585,00 €	468,00 €	117,00 €
OIARTZUNGO GAZTEEN MTB TXAPELKETA	OTXE OARSOALDEA TXIRRINDULARI ELKARTEA	44	271,71 €	217,37 €	54,34 €
			<b>6.711,71 €</b>	<b>5.369,37 €</b>	<b>1.342,34 €</b>

Covid19ak eraginda, salbuespeneko eskaerak eta norgehiagokan sartzen ez direnak:

JARDUERA	ESKATZAILEA	Puntuak	100%	1. ORDAINKETA	2. ORDAINKETA
INTXIXU TRAIL LASTERKETA	ZORROLA TRAIL	0	160,62 €	128,50 €	32,12 €
			<b>160,62 €</b>	<b>128,50 €</b>	<b>32,12 €</b>

Ordainketa, udal aurrekontuko 1.1102.481.341.00.03 (177-2020) diru atalaren kargura bideratuko da.

Jexux Leonet Elizegi Alkate-Udalburu Jna.k agintzen eta sinatzen du, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

**Digitalki sinatua:**  
**JEXUX LEONET ELIZEGI**  
**26/10/2020, 08:14:45**